## Herri Lan Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 89/2011 FORU DEKRETUA maiatzaren 17koa, Bizkaiko errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 foru arauko 33. artikulua garatzen duena. Artikulu hori Bizkaiko lurralde historikoko foru sareko errepideetako publizitateari buruzkoa da.**

*Zioen azalpena*

Sustapen Ministerioak 1999ko abenduaren 28an onartutako 8.1-IC Arauak oinarrizko irizpide tekniko batzuk ezarri zituen; erre-

## Departamento de Obras Públicas

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 89/2011 de 17 de mayo por el que se desarrolla el artículo 33 de la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo de carreteras de Bizkaia, relativo a la publicidad en las carreteras de la red foral del territorio histórico de Bizkaia.**

*Exposición de motivos*

La Norma 8.1-IC aprobada por Orden del Ministerio de Fomento de 28 de diciembre de 1999 establece los criterios téc-

cve: BAO-BOB-2011a097

pideen proiektuetako seinaleen diseinua eta ezarpena irizpide horietara egokitu behar dira.

Arau hori Estatuko errepide guztietan aplikatzen da; baina ez da aplikatzekoa hiri barruko errepideetan, zeharbideetan izan ezik; izan ere, hiri barruko errepideek beren araudi espezifikoa dute. Hala ere, gomendatzen da hiri barruko bide-tarteetan zein zeharbideetan erabiltzea araudi hori.

8.1-IC Arauaren arabera, honako helburu hauek izan behar ditu seinaleztapen on batek:

— Zirkulazioaren segurtasuna areagotzea.

— Zirkulazioaren eraginkortasuna areagotzea.

— Zirkulazioaren erosotasuna areagotzea.

Horretarako, ahal den guztietan, seinaleak arduratzen dira egon litezkeen arriskuez ohartarazteaz, zirkulazioa antolatzeaz, zirkulazioaren araudi orokorreko agindu batzuk gogorarazi eta mugatzeaz eta erabiltzaileei behar duten informazioa emateaz.

Honako hauek dira seinale onen oinarrizko printzipioak: argitasuna, sinpletasuna eta uniformetasuna.

Argitasunaren printzipioak ezartzen du erabiltzaileek erraz ulertzeko moduko mezuak transmititzea, gidariaren arreta ez kargatzea nabarmenak diren mezuak errepikatuz, eta, betiere, ahalik eta murrizketa gutxien jartzea zirkulazioari, errepideetako egoera batzuk edo errepideak erabiltzeko murrizketa batzuk adierazteko behar diren seinaleak kenduz egoera edo murrizketa horiek desagertzen direnean.

Sinpletasunaren printzipioak eskatzen du ahalik eta elementu gutxien erabiltzea.

Uniformetasunaren printzipioak, elementuen arteko harremanari ez ezik, elementu horien ezarpenari eta ezarpenaren irizpideei ere egiten die erreferentzia.

Hori dela-eta, seinaleak zirkulazioari laguntzeko tresnatzat hartu behar dira: errepide-sarea ondo erabiltzen laguntzen duten arren, ezin dira izan, inola ere, segurtasunaren edo informazioaren bermea, eta ezin dute gidatzeko modu aditu eta arduratsua ordeztu, nahiz eta gidariek ezarrita dauden murrizketak errespetatzeko legezko betebeharrak bete behar dituzten.

Bizkaiko foru errepideen sarea berezia da; izan ere, hainbat errepide mota daude, eta orografia ere berezia da. Beraz, komeni da errepideetatik hurbil dauden zerbitzuak seinaleztatzeko baldintzak arautzea, erabiltzaileek non dauden jakin dezaten eta bide-segurtasuna manten dadin.

Bestalde, eta dekretu honetan arautako arloarekin zuzeneko lotura duenez, turismoaren sektoreari buruzko aipamen berezi bat egin behar da. Ekonomiari buruzko azken adierazleen arabera, sektore horrek garrantzi handia du euskal ekonomian eta Bizkaiko Lurralde Historikoan; egoera hori egunez egun gero eta nabarmenagoa da, erakundeek sustapena egiten baitute gurea lehentasunezko turismogune izan dadin. Beraz, ekonomian beharrezkoak diren sinergiak sortu behar dira, eta beharrezkoa da sinergia horiek mantentzea eta, areago, sustatzea. Ondorioz, adierazi behar da sektore hori zeharkako arlo bat dela, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen eskumen guztietan egon behar dela presente garatu beharreko politiken plangintza egiten denean.

Goian azaldutakoaren arabera, errepideen arloa ez dago turismo jardueratik kanpo, arloaren garapenari eta kudeaketa egokiari dagokienez; beraz, kontzeptu hori dela-eta sortutako seinaleek errepideen eta bide-segurtasunaren arloan duten eragina nabaria denez, erabat komenigarria da —ikuspuntu hau kontuan hartuta— gaiari buruzko araudi egoki bat egitea, egin beharreko jarduerak harmonizatzeko irizpideak ezarriz.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 10.34 artikuluak eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7. artikuluko a) letrako 8. zenbakiak Bizkaiko Lurralde Historikoko foru organoei aitortzen

nicos básicos a los que debe ajustarse el diseño e implantación de la señalización en los proyectos de carreteras.

Dicha Norma se aplica en todas las carreteras del Estado no resultando aplicable a vías urbanas, excepto travesías, que se rigen por su Normativa específica, si bien se recomienda que en tramos urbanos y travesías se utilice dicha Normativa.

De conformidad con la citada Norma 8.1-IC, una buena señalización debe perseguir los siguientes objetivos:

— Aumentar la seguridad de la circulación.

— Aumentar la eficacia de la circulación.

— Aumentar la comodidad de la circulación.

Para ello, siempre que sea factible, es la señalización la encargada de advertir de los posibles peligros, ordenar la circulación, recordar o acotar algunas prescripciones del Reglamento General de Circulación y proporcionar al usuario la información que precise.

Los principios básicos de la buena señalización son: claridad, sencillez y uniformidad.

La claridad impone transmitir mensajes fácilmente comprensibles por los usuarios, no recargar la atención del conductor reiterando mensajes evidentes, y, en todo caso, imponer las menores restricciones posibles a la circulación, eliminando las señales requeridas para definir determinadas circunstancias de la carretera o determinadas restricciones en su uso en cuanto cesen de existir esas condiciones o restricciones.

La sencillez exige que se emplee el mínimo número posible de elementos.

La uniformidad se refiere no sólo a los elementos en sí, sino también a su implantación y a los criterios que la guíen.

Es por esto que la señalización debe entenderse como una ayuda a la circulación que facilita el buen uso de la red de carreteras pero que en ningún momento puede considerarse como una garantía de seguridad o de información ni puede sustituir a la conducción experta y responsable, todo ello sin perjuicio de la obligación legal de los conductores de respetar las limitaciones impuestas.

Dada la singularidad de la red de carreteras forales de Bizkaia, que presenta diferentes jerarquías y una particular orografía, resulta conveniente regular las condiciones de señalización de los servicios próximos a las mismas al objeto de indicar a las personas usuarias su ubicación garantizando al mismo tiempo el mantenimiento de la seguridad vial.

En otro orden de cosas, y como materia directamente conexa con la regulada en el presente Decreto resulta de interés realizar una mención especial al sector turístico. De acuerdo con los últimos indicadores económicos, el citado sector posee un peso específico relevante en la economía vasca y del Territorio Histórico de Bizkaia, circunstancia que se ve reforzada cada día mas por el hecho de existir una promoción institucional del mismo como destino turístico preferente. Tal circunstancia contribuye a crear unas sinergias económicas considerables que es preciso mantener cuando no fomentar. Ello conlleva a concluir que el citado sector constituye una materia transversal en el sentido que debe de estar presente en todas las materias de competencia de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia a la hora de planificar las diferentes políticas que vayan a ser desarrolladas.

De acuerdo con lo expuesto, la materia de carreteras no resulta libre de la influencia de la actividad turística en lo que concierne a su desarrollo y adecuada gestión, por lo que dada la evidente afectación de la señalización producida bajo este concepto en la materia de carreteras y de seguridad vial, resulta de todo punto conveniente, desde esta perspectiva, afrontar una regulación adecuada de la materia que nos ocupa estableciendo los criterios que sirvan para armonizar las diferentes actuaciones al respecto.

En ejercicio de la competencia exclusiva de los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia en materia de carreteras prevista en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía y en el artículo 7 a) apartado 8 de la ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma

cve: BAO-BOB-2011a097

dieten bakarreko eskumena erabilita, Batzar Nagusiek Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Araua onartu zuten.

Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauko 33. artikuluak xedatzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunaren baimena beharrezkoa dela hiri barruko bide-tarteetatik kanpo eta ingurabideetan publizitatea jartzeko, eta, horrez gainera, foru dekretu bidez honako alderdi hauek zehaztu behar direla: baimena jaso dezaketen kasuak, baimen horiek bete beharreko baldintzak, baimendutako pertsonak dituen eskubide eta betebeharrak, baimenaren iraupenepea eta baimena baliogabetzeko kasuak.

Foru dekretu honen xedea da Errepideei buruzko Foru Arauko 33. artikulua garatzea, Bizkaiko foru sareko errepideetan publizitatea jartzeko baimena emateko oinarrizko irizpideak ezarriz.

Horregatik guztiagatik, Herri Lan Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2011ko maiatzaren 17ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.—*Xedea***

Foru dekretu honen xedea da martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauko 33. artikulua garatzea; artikulu hori Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sareko errepideetako publizitateari buruzkoa da.

**2. artikulua.—*Aplikazio-eremua***

Foru dekretu hau Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sareko errepideei aplikatuko zaie.

**3. artikulua.—*Definizioak***

Dekretu honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Publizitatea: edozein pertsona fisiko edo juridikok errepideetako erabiltzaileei egiten dien komunikazio oro, zuzenean edo zeharka jarduerak edo ondasun zein zerbitzuen kontratazioa sustatzeko.

Merkataritza- eta industria-establezimenduen informazio-seinaleak, errotuluak edo antzeko instalazioak ez dira publizitatetzat joko, betiere eraikinean bertan edo haren inguru hurbilean jartzen badira eta informazio osagarririk ematen ez badute.

b) Informazio-kartelak: kartelon bidez, zerbitzu bati edo leku erabilgarri bati buruzko informazioa ematen zaie errepidearen erabiltzaileei.

c) Zerbitzuen seinaleak: nazioarteko, Europako eta Estatuko oinarrizko araudian halakotzat hartutakoak; izendapen ofiziala izan behar dute, eta berariaz onartutako administrazio-jardueren bidez katalogatuta egon.

d) Trafiko-erakargune garrantzitsuak: gune horietan, urtean gutxienez ere 90 egunetan, trafikoaren portzentajea seinaleei dagozkien errepideko eta zirkulazioaren noranzkoko trafikoa baino % 10 handiagoa da. Seinale horiek ezin izango diete erreferentziarik egin, inola ere, merkataritza-izenei, salbu eta izen horiek —erabilera orokorraren ondorioz—toponimoen antzekotzat hartzen badira.

e) Informazio osagarria: zuzenean edo zeharka ondasun edo zerbitzuen kontratazioa sustatzeko den komunikazio oro.

f) Herria: eraikinak dituen gune bat da, sartzen zein irteteko bideetan —hurrenez hurren— herrira sartzeko eta herritik irteteko seinaleak dituena.

g) Hiri barruko bide-tarteak: dagokien hirigintza-plangintzak egindako sailkapenaren arabera, alde bietan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua dutenak.

y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, las Juntas Generales han aprobado la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de Carreteras de Bizkaia.

El artículo 33 de la Norma Foral de Carreteras de Bizkaia dispone que la publicidad fuera de los tramos urbanos y en las carreteras de circunvalación será objeto de autorización del órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia así como que será objeto de desarrollo mediante el correspondiente Decreto Foral la determinación de los supuestos autorizables, las condiciones a las que se deben sujetar estas autorizaciones, los derechos y obligaciones que asume la persona autorizada, el plazo de vigencia de la autorización así como los supuestos de revocación.

El objeto del presente Decreto Foral es desarrollar el contenido del citado artículo 33 de la Norma Foral de Carreteras estableciendo los criterios básicos a los que debe ajustarse la autorización de publicidad en las carreteras de la red foral de Bizkaia.

Por todo ello, a propuesta de la diputada foral de Obras Públicas, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia de 17 de mayo de 2011,

DISPONGO:

TÍTULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.—*Objeto***

Constituye el objeto del presente Decreto Foral el desarrollo del artículo 33 de la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, relativo a la publicidad en las carreteras de la red foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 2.—*Ámbito de aplicación***

El presente Decreto Foral será de aplicación a las carreteras integrantes de la Red Foral de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 3.—*Definiciones***

A efectos del presente Decreto se entenderá por:

a) Publicidad: toda forma de comunicación realizada por persona física o jurídica, dirigida a las personas usuarias de la carretera, con la finalidad de promover de forma directa o indirecta actividades o la contratación de bienes o servicios.

No se considera publicidad las señales informativas, ni los rótulos o las instalaciones similares indicativas de establecimiento mercantil o industrial, siempre que se sitúen en el mismo edificio o en su inmediata proximidad y no incluyan ningún tipo de información adicional.

b) Carteles Informativos: aquellos que tengan por finalidad informar de un servicio o lugar de posible utilidad para las personas usuarias de la vía.

c) Señales de Servicio: las definidas como tales en la normativa internacional, europea y estatal de carácter básico, que estén oficialmente denominadas y catalogadas mediante actuaciones administrativas a tal efecto aprobadas.

d) Centro importante de atracción de tráficos: aquellas localizaciones que generen durante al menos 90 jornadas anuales, un tráfico que suponga un porcentaje superior al 10 % del correspondiente al de la carretera señalizada respecto al sentido de circulación al que se refiere la indicación. En ningún caso la señalización podrá hacer referencia a nombres comerciales salvo que su uso generalizado los haga asimilables a designaciones toponímicas.

e) Información Adicional: toda forma de comunicación dirigida a promover de forma directa o indirecta la contratación de bienes y servicio.

f) Poblado: espacio que comprende edificios y en cuyas vías de entrada y de salida están colocadas, respectivamente, las señales de entrada a poblado y de salida de poblado.

g) Tramo urbano: aquellos tramos de carretera cuyo suelo en ambas márgenes esté clasificado como urbano por el correspondiente instrumento de planeamiento urbanístico.

cve: BAO-BOB-2011a097

**4. artikulua.—*Debekuak***

1. Hiri barruko bide-tarteetatik kanpo.

Hiri barruko bide-tarteetatik kanpo, debekatuta dago errepidearen jabari publikoko eremutik ikus daitekeen edozein tokitan kartelak edo publizitateko beste elementu batzuk jartzea, modu finkoan zein aldi baterako jarrita ere.

Aurreko lerrokadan ezarritako debekuak publizitateko elementu guztietan du eragina; honako hauek sartzen dira debeku horren barruan: errotuluak jartzea, euskarriak eta publizitatearen edozein adierazpen mota jartzea (marrazkiak, piktogramak, anagramak, argiseinaleak, seinale akustikoak eta, oro har, errepideen erabiltzaileen arreta erakartzeko edozein elementu deigarri).

Debeku horrek ez du inoiz ere kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik emango.

Dekretu honen ondorioetarako, ikusteko eran dagoen publizitatea da errepidearen jabari publikoko eremutik irakur edo uler daitekeen edozein publizitate-instalazio mota eta, horretaz gainera, errotulu jakin batzuk, hain zuzen hauek: gehienezko dimentsioa galtzadaren kanpoko ertzarekiko distantzia baino % 10 handiagoa dutenak edo, errepidearen plataformaren edozein puntutatik begiratuta dituzten ezaugarriak eta argitasuna direla-eta, erabiltzaileei nahastea edo arreta galtzea eragin ahal dizkietenak, edo bide-zirkulazioaren segurtasunarekin bateraezinak direnak.

2. Hiri barruko bide-tarteetan:

Bizkaiko foru errepideetan dauden hiri barruko bide-tarteetan, publizitateak udal ordenantzetan ezarritakoa bete behar du; nolanahi ere, jabari publikoko eremutik kanpo jarri behar da, eta ez du eraginik izango errepideko seinale, argi eta balizetan. Debeku horrek ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik emango.

**5. artikulua.—*Salbuespenak***

Aurreko artikuluko debekua ez aplikatuko honako kasu hauetan:

1. Errepideen arloan eskumena duen sailak instalatutako edo baimendutako informazio-kartelak. Ondorio horietarako, honako hauek joko dira informazio-karteltzat:

— Zerbitzuen seinaleak.

— Turismoko seinaleak eta, oro har, interes natural edo kulturaleko leku, inguru eta paisaiak adierazten dituzten kartelak.

— Errepidetik sarbidea duten herrien, urbanizazioen eta trafiko-erakargune garrantzitsuen seinaleak.

— Erakundeen iragarkiei buruzkoak edo garraio-sistemari lotutako instalazio publikoei buruzkoak.

— Errepidean eragina duten jarduera eta lanei buruzkoak.

— Erabiltzaileei bidearen egoerari eta trafikoaren gainerako inguruabarrei buruzko informazioa ematen dietenak.

— Hurbilen dagoen zerbitzugunean dauden erregaiei, eta erregai horien markari eta prezioei buruzkoak.

— Nazioarteko araudiak ezarritakoak.

2. Merkataritza- edo industria-establezimenduen jarduerak adierazteko errotuluak, baldin eta jarduera egiten duten eraikinetan bertan edo haien inguru hurbilean badaude.

3. Ikuskizunei, kultura eta kirol arloko ekitaldi edo probei edo antzeko jarduerei buruz aldi jakin baterako jartzen diren informazio-errotuluak, baldin eta jarduerok errepidean bertan edo haren inguruan egiten badira eta haien iraupena aldi baterako bada.

II. TITULUA

**BETEKIZUNAK**

**6. artikulua.—*Informazio-kartelak***

1. Errepideko zirkulazioaren berri emateko eta zirkulazioa antolatzeko jartzen diren seinaleak, kartelak eta panel osagarriak dira informazio-kartelak.

**Artículo 4.—*Prohibiciones***

1. En tramos no urbanos.

Fuera de los tramos urbanos de carretera queda prohibida la colocación, fija o provisional de carteles u otros elementos publicitarios que sean visibles desde la zona de dominio público de la carretera.

La prohibición establecida en el apartado anterior afecta a todos los elementos de la instalación publicitaria, e incluye la fijación de rótulos, la colocación de soportes y cualquier manifestación de la actividad publicitada, dibujos, pictogramas, anagramas, señales luminosas y acústicas y en general cualquier reclamo para atraer la atención de la persona usuaria de la carretera.

Esta prohibición no dará derecho en ningún caso a indemnización.

A los efectos de este Decreto, se entiende por visible toda instalación publicitaria que resulte legible o comprensible desde la parte de la zona de dominio público de la carretera, y en cualquier caso los rótulos cuya mayor dimensión sea superior al 10% de la distancia a la arista exterior de la calzada o a aquellos, que por sus características y luminosidad vistos desde cualquier punto de la plataforma de la carretera, puedan producir deslumbramientos, confusión o distracción a las personas usuarias, o sean incompatibles con la seguridad de la circulación viária.

2. En tramos urbanos

En los tramos urbanos afectados de las carreteras forales de Bizkaia la publicidad estará sometida a las ordenanzas municipales, debiendo situarse fuera de la zona de dominio público y no afectando a la señalización, iluminación ni balizamiento de la carretera. Esta prohibición no da derecho a indemnización.

**Artículo 5.—*Excepciones***

La prohibición del artículo anterior no se aplicará en los siguientes supuestos:

1. Carteles informativos instalados o autorizados por el Departamento competente en materia de carreteras. A estos efectos, se consideran carteles informativos:

— Las señales de servicio.

— La señalización turística, y en general los carteles que indiquen lugares, parajes y paisajes de interés natural o cultural.

— La señalización de poblaciones, urbanizaciones y centros importantes de atracción de tráfico con acceso desde la carretera.

— Los que correspondan a anuncios institucionales o a instalaciones de carácter público vinculados al sistema de transportes.

— Los que se refieran a actividades y obras que afecten a la carretera.

— Los que informen a los usuarios del estado de la vía y demás circunstancias relacionadas con el tráfico.

— Los que se refieran a los carburantes disponibles, marca y precios de los mismos en la estación de servicio más próxima.

— Los que sean exigidos por la normativa internacional.

2. Los rótulos de los establecimientos mercantiles o industriales que sean indicativos de su actividad, y estén situados en los edificios o en su inmediata proximidad en que aquellos desarrollen su actividad.

3. Los rótulos eventuales informativos de espectáculos, celebraciones o pruebas culturales, deportivas o similares, que se desarrollen en la propia carretera o en sus inmediaciones, siempre que la celebración sea ocasional.

TÍTULO II

**REQUISITOS**

**Artículo 6.—*Carteles informativos***

1. Son carteles informativos las señales, carteles y paneles complementarios destinados a informar y ordenar la circulación de la carretera.

cve: BAO-BOB-2011a097

2. Formak, koloreek, dimentsioek eta hizkuntza arloko zehaztasunek arloari buruzko nazioarteko, Europako, Estatuko eta erkidegoko araudian ezarritako irizpideak bete behar dituzte, bai eta katalogo ofizialetan ezarritakoak ere. Irizpide horiek, edozein kasutan ere, bide-segurtasunari buruzko araudian xedatutakoa bete behar dute.

3. Informazio-kartelen diseinuek eta egiturek nahikotasunez bete behar dituzte segurtasun eta kalitateko baldintzak, kartelen elementuei, euskarriei, eusteko egiturei zein markoei dagokienez eta haien osotasunari dagokionez. Horretarako, honako kasu hauetan beharrezkoa da zuzendaritza fakultatiboa egotea:

— 32 m² baino handiagoak direnean.

— Beheko ertza 2,50 metrotik gora dagoenean.

— Instalazioaren punturik gorena 5 metrotik gora dagoenean, lurraren sestratik neurtuta.

— Argi-instalazioak edo instalazio mekanikoak direnean.

4. Kartel guztietan, kartelaren jabea den enpresa eta instalatu zen urtea adierazi behar dira.

5. Informazio-kartelek ezin izango dute merkataritza-izenik jaso.

**7. artikulua.—*Zerbitzuen seinaleak***

1. Zerbitzuen seinaleetan, funtsezkoak direnak eta funtsezkoak ez direnak daude.

2. Funtsezko seinaleek honako zerbitzu hauei buruzko informazioa ematen dute: osasun-laguntza, atsedenlekuak eta gasolindegiak, eta, horrez gainera, hotelak, jatetxeak, kafetegiak, ibilgailuak konpontzeko tailerrak eta informazio turistikoa emateko guneak, gasolindegia duten eremu edo zerbitzugune batean badaude.

Gainerako zerbitzuen seinaleak ez dira funtsezkoak.

3. Zerbitzuen seinaleak foru errepidearen azken irteerara heldu aurretik jarriko dira, 150 m - 250 m lehenago; ahal dela, bideari berari dagozkion seinaleetatik aparte jarriko dira.

4. Zerbitzuen seinaleetan, bi piktograma baino ez dira onartuko. Edonola ere, foru errepidearekiko sarbidea partekatzen den kasuetan, Bizkaiko Foru Aldundiak baimena eman ahal izango du bi piktograma baino gehiago dituzten seinaleak jartzeko, baldin eta bide-segurtasuna bermatuta badago.

5. Oro har, funtsezko zerbitzuen seinaleak baimendu ahal izango dira baldin eta haien kokapena bateragarria bada bide-segurtasunarekin.

Funtsezkoak ez diren zerbitzuen seinaleen erabilera murriztuta egongo da. Seinaleok jartzeko, beharrezkoa izango da haien garrantzia eta komenigarritasuna justifikatzea eta honako baldintza hauek betetzea:

— Oinarrizko sareko, sare osagarriko, eskualdeko sareko edo sare lokaleko errepide arruntetan instalatu behar dira, inoiz ez autobideetan edo automobil-bideetan.

— Errepideen foru sarea utzi aurreko azken irteeran jarri behar dira, baldin eta irteera horrek biztanleguneren bat edo bertan seinaleztaturiko beste errepideren bat zeharkatzen ez badu.

— Foru errepidetik ikus daitezkeen zerbitzuak dagokien establezimendu-errotuluarekin seinaleztatuko dira.

Horrez gainera, Herri Lan Sailak funtsezkoak ez diren zerbitzuen seinaleak baimendu ahal izango ditu oinarrizko sareko, sare osagarriko, eskualdeko sareko edo sare lokaleko errepide arrunt baten azken bidegurutzean, BI-4XXX erako errepide itsu batean sartu aurretik (seinale horiek instalatzea garrantzitsua eta komenigarria dela justifikatu ondoren), baldin eta horrek errepidearen bideseinaleetan eraginik ez badu eta aurretik seinaleztaturiko ezein biztanlegune zeharkatzen ez bada.

**8. artikulua.—*Turismoko seinaleak***

1. Formak, koloreek, dimentsioek eta hizkuntza arloko zehaztasunek arloari buruzko nazioarteko, Europako, Estatuko eta erki-

2. La forma, los colores, las dimensiones y las determinaciones lingüísticas deben ajustarse a los criterios establecidos por la normativa internacional, europea, estatal y autonómica aplicables en la materia así como por los catálogos oficiales, que en cualquier caso deberán respetar lo prescrito en la normativa sobre seguridad vial.

3. Los diseños y construcciones de los carteles informativos, tanto en sus elementos, estructuras de sustentación y marcos como en su conjunto, deberán reunir las suficientes condiciones de seguridad y calidad. A tal efecto, será obligatoria la exigencia de dirección facultativa en los siguientes supuestos:

— Cuando su dimensión supere los 32 m².

— Cuando el borde inferior se encuentre a altura superior a 2,50 metros.

— Cuando el punto mas alto de la instalación supere los 5 metros medidos desde la rasante del terreno en su caso

— Cuando se trate de instalaciones luminosas o mecánicas.

4. En cada cartel informativo deberá constar la empresa propietaria del mismo y el año de instalación.

5. Los carteles informativos no podrán contener nombres comerciales.

**Artículo 7.—*Señales de servicio***

1. Las señales de servicio se clasifican en esenciales y no esenciales.

2. Son esenciales las señales que informan sobre la existencia de servicios de asistencia sanitaria, áreas de descanso y gasolineras, así como sobre la existencia de hoteles, restaurantes, cafeterías, talleres de reparación e información turística siempre que se sitúen en áreas o zonas de servicio con presencia de gasolineras.

El resto de señales de servicio tienen el carácter de no esenciales

3. Las señales de servicio se situarán entre 150 m y 250 m antes de la última salida de la carretera foral y a ser posible de forma independiente a la propia señalización vial.

4. Las señales de servicio solamente admitirán dos pictogramas. No obstante, en los supuestos de acceso compartido a la carretera foral, la Diputación Foral de Bizkaia podrá autorizar señales de servicio con más de dos pictogramas siempre y cuando se garantice la seguridad vial.

5. En general serán autorizables las señales de servicio esenciales siempre que su ubicación sea compatible con la seguridad vial.

Las señales de servicio no-esenciales deberán utilizarse con carácter restrictivo, previa justificación de su relevancia y conveniencia y siempre que se cumplan todas las condiciones siguientes:

— Se instalen en carreteras convencionales pertenecientes a las redes básica, complementaria, comarcal o local, nunca en autopistas, autovías, ni vías para automóviles.

— Se instalen en la última salida antes de abandonar la red foral de carreteras, siempre y cuando ésta no atraviese ningún núcleo de población ni ninguna carretera señalizada en la misma.

— Aquellos servicios que estén visibles desde la carretera foral, se señalizaran mediante el correspondiente rótulo de establecimiento.

Asimismo, el Departamento Foral de Obras Públicas, podrá autorizar la instalación de señales de servicio no-esenciales, en el último cruce de carretera convencional perteneciente a las redes básica, complementaria, comarcal o local, antes de tomar una carretera tipo BI-4XXX, fondo de saco, previa justificación de su relevancia y conveniencia, siempre que no interfiera con la señalización vial de la propia carretera y no se atraviese ningún núcleo de población previamente señalizado.

**Artículo 8.—*Señales de turismo***

1. La forma, los colores, las dimensiones y las determinaciones lingüísticas de las señales de turismo deben ajustarse a los crite-

cve: BAO-BOB-2011a097

degoko araudian ezarritako irizpideak bete behar dituzte, bai eta katalogo ofizialetan ezarritakoak ere.

Ikonografia, berriz, Sustapen Ministerioaren eskuliburuan adierazten diren 3 motetako batera egokituko da:

— Kultura: gizadiaren ondareko hiriak, nazioarteko ondare gisa katalogaturiko ondasunak eta interes kulturaleko beste leku batzuk.

— Natura: biosferaren erreserbak, parke naturalak eta beste naturgune interesgarri batzuk.

— Hondartza: eguzkia eta hondartza eskaintzen dituzten lekuak, kalitate handikoak eta bereziak izateagatik.

2. Seinaleztatu beharreko lekuak «interes turistikotzat» jo behar ditu administrazio eskudunak.

3. Interes historiko edo artistiko nabarmena duten lekuen kasuan, S-121 seinale baten bidez (+ piktograma, + gezia edo + distantzia) adieraziko da haien kokapena, baldin eta leku horien interesa modu ofizialean aitortuta badago, errepideen ondoan badaude eta haietara errepidearen irteera batetik zuzenean heldu ahal bada. Seinale hori hurbilen dagoen irteerara heldu aurretik jarriko da, 150 m – 250 m lehenago.

4. Udalen kartel turistikoak hiri barruko bide-tarteetan baino ezin izango dira baimendu.

5. Seinale horiek ezin izango diote erreferentziarik egin, inola ere, merkataritza-izenei, salbu eta izen horiek —erabilera orokorraren ondorioz—toponimoen antzekotzat hartzen badira.

**9. artikulua.—*Merkataritza- edo industria-establezimenduen errotuluak***

1. Merkataritza- edo industria-establezimenduen errotuluak ez dira publizitatetzat hartuko baldin eta establezimendu horien egoitza hartzen duten higiezinetan edo haren inguru hurbilean jarrita badaude. Errotuluotan ezin izango da ondasun edo zerbitzuen kontratazioari buruzko informazio osagarririk eman.

2. Honako baldintza hauek bete behar dituzte merkataritza- edo industria-establezimenduen errotuluek eta antzeko instalazioek:

— Eraikinean bertan edo haren inguru hurbilean jarri behar dira. Horretarako, kasu honetan ulertuko da errotuluak eta antzeko instalazioak merkataritza- edo industria-eraikin baten inguru hurbilean daudela: jabari publikoa alde batera utzita, finkan bertan kokatuta badaude, gehienez ere eraikinetik 8 metrora. Zutoinetan jartzen direnen kasuan, zutoinak eta errotuluak osatzen duten multzoaren gehienezko altuera halako bat eta erdiko distantziara jarriko dira galtzadaren kanpoko ertzetik. Altuera hori zutoinaren oinarrian dagoen lurretik neurtuko da.

— Errotuluen edukiaren helburu bakarra establezimendua identifikatzea izango da; beraz, errotuluek ez dute informazio osagarririk emango.

3. Honako kasu honetan ezin izango dira baimendu errotuluak: baldin eta beren ezaugarrien, hitz edo mezu kopuruaren eta argitasunaren ondorioz erabiltzaileengan itsutzea, nahastea edo arreta galtzea eragin badezakete edo bide-zirkulazioaren segurtasunarekin bateraezina badira.

**10. artikulua.—*Aldi baterako errotuluak***

1. Salbuespenez, aldi baterako errotuluak jartzeko baimena eman ahal izango da, errepidean bertan edo haren inguru hurbilean egiten diren jarduerei buruzko informazioa emateko (aldi jakin baterako egiten diren ikuskizunak, kultura eta kirol arloko ekitaldi edo probak edo antzeko jarduerak iragartzeko). Baimena emateak ekarriko du behin jarduera amaitu ondoren errotulua kendu beharra.

2. Aldi baterako errotulu bat jartzeko baimena bidearen titularrari eskatu behar zaio, eta hark emango du baldin eta eskabidean egiaztatzen bada errotuluak betetzen dituela proba edo ekitaldiaren antolatzaileek segurtasun arloan ezarritako baldintzak. Proba edo ekitaldiaren antolatzaileak arduratuko dira publizitatea jartzeaz eta kentzeaz.

rios establecidos por la normativa internacional, europea, estatal y autonómica aplicables en la materia así como por los catálogos oficiales.

La iconografía se ajustará a uno de los 3 tipos que se reflejan en el Manual del Ministerio de Fomento:

— Cultural: Ciudades Patrimonio de la Humanidad, Bienes catalogados como Patrimonio Mundial, y otros destinos de interés cultural.

— Naturaleza: Reservas de la Biosfera, Parques Nacionales, y otros destinos naturales de interés.

— Playa: Oferta de Sol y Playa que destaca por sus especiales niveles de calidad y singularidad.

2. Las localizaciones a señalizar deberán estar declaradas como «de interés turístico» por la Administración competente.

3. La presencia de lugares de interés histórico o artístico, que lo tengan relevante y estén oficialmente reconocidos como tales, sean contiguos a la propia carretera y a los que se acceda de forma directa desde una salida de ésta, se advertirá mediante una señal S-121 (+ pictograma, + flecha o + distancia). Esta señal se colocará entre 150 m y 250 m de la salida inmediata.

4. Los carteles turísticos municipales, sólo podrán ser autorizados en tramo urbano.

5. En ningún caso la señalización podrá hacer referencia a nombres comerciales salvo que su uso generalizado los haga asimilables a designaciones toponímicas.

**Artículo 9.—*Rótulos de establecimientos mercantiles o industriales***

1. Los rótulos de establecimientos industriales o mercantiles no se considerarán publicidad si se encuentran situados sobre los inmuebles en los que aquellos tengan su sede o en su inmediata proximidad. No podrán incluir ninguna comunicación adicional tendente a la contratación de bienes o servicios.

2. Los rótulos, o instalaciones similares, indicativos de establecimientos industriales o mercantiles deben reunir los siguientes requisitos:

— Que se sitúen en el mismo edificio o en su inmediata proximidad. A tal efecto se entenderá que un rótulo o instalación indicativo está situado en la inmediata proximidad de un edificio mercantil o industrial, siempre que librando el dominio público, esté ubicado en la misma finca y a una distancia máxima de 8 m respecto de la edificación. Los que estuvieren colocados sobre postes deberán situarse a vez y media la altura máxima del conjunto poste y rótulo de la Arista exterior de la Calzada. Dicha altura se medirá desde el terreno natural sobre el que se apoya el poste.

— Que su contenido tenga por única finalidad la identificación del establecimiento, sin incluir información adicional.

3. No se podrán autorizar los rótulos que por sus características, excesivo número de palabras o de mensajes, o luminosidad, vistos desde cualquier punto de la plataforma de la carretera, puedan producir deslumbramientos, confusión o distracción a los usuarios de ésta, o resulten incompatibles con la seguridad de la circulación vial.

**Artículo 10.—*Rótulos eventuales***

1. Con carácter excepcional, podrá autorizarse la colocación de rótulos de carácter eventual para facilitar información sobre actividades que se desarrollen en la propia carretera o en su entorno inmediato, tales como espectáculos, celebraciones o pruebas culturales, deportivas o similares, de carácter ocasional. Esta autorización conllevará la obligación de retirar el rótulo una vez finalizada la actividad.

2. La autorización del rótulo eventual deberá solicitarse al titular de la vía, que la otorgará si la solicitud acredita que se sujeta a las condiciones de seguridad establecidas por la organización de la prueba o acontecimiento. La colocación y la retirada de la publicidad correrán a cargo de los organizadores de la prueba o acontecimiento.

cve: BAO-BOB-2011a097

3. Ibilgailuetan jarritako errotuluak, marrazkiak eta inskripzioak, baldin eta ibilgailuen jabeari edo kargari egiten badiete erreferentzia, ez dira publizitatetzat hartuko.

4. Edonola ere, debekatuta dago honako hauek erabiltzea: substantzia eta/edo material islatzaileak eta trafiko-seinaleekin edo zirkulazioan nahastea edo ibilgailuen joan-etorria trabatzea eragin dezaketen kolore eta konposizioak.

**11. artikulua.—*Elebitasuna***

1. Informazio-karteletako testuek hizkuntza-normalizazioan indarrean dagoen araudia bete behar dute, eta, betiere, honako arau hauetara egokituko dira:

— Izen bereziak (herriak, probintziak, autonomia-erkidegoak, gune bereziak):

Toponimo ofiziala bakarrik erabiliko da.

Oraindik ere toponimo ofiziala erabaki gabe badago, izen berezia bi hizkuntzetan idatziko da: autonomia-erkidegoko hizkuntzan eta gaztelaniaz. Kasu horretan, izena lerro batean jartzeko bezain laburra bada, lehenengo erkidegoko hizkuntzan jarriko da eta gero gaztelaniaz; biak bereizteko barra (/) erabiliko da. Baina, izenaren luzeragatik bi lerrotan idatzi behar bada, gaztelaniazko izena autonomia-erkidegoko hizkuntzaz idatzitako izenaren azpian idatziko da, marra horizontal batez bereizita.

Aurrekoa gorabehera, errepideen mapa ofiziala aldatzen ez den bitartean, herri baten toponimo ofiziala mapa horren azken edizioan agertzen denetik oso desberdina bada, izen biak idatziko dira.

Letra motak ez du aldaketarik izango.

— Izen arruntak: Izen arruntak izen ofiziala ez duten izen bereziak bezala idatziko dira, bakoitzari dagokion letra mota erabilita; ahal dela, haien ordez piktogramak erabiliko dira.

III. TITULUA

**PROZEDURA**

**12. artikulua.—*Eskaerak***

1. Informazio-kartelak, merkataritza- eta industria-establezimenduen errotuluak eta aldi baterako errotuluak jarri aurretik, interesdunek eskaera egin behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailari baimena lortzeko, eta baimenaren titularrak arduratuko dira kartel eta errotulu horiek kontserbatzeaz eta mantentzeaz.

2. Horretarako, interesdunek eskabidea aurkeztu behar dute Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailean, honako agiri hauekin batera:

a) NANa edo IFK.

b) Instalazioa azaltzeko memoria.

c) Kokapenaren planoa eskalan, errepidearekiko distantzien kotak adierazita.

d) Instalazioaren aurrekontua.

e) Elkargo ofizialak ontzat emandako txosten teknikoa, 6.3 artikuluan araututako kasuetan.

**13. artikulua.—*Baimena***

1. Baimena jasotzeko eskaera aurkeztu denetik lau hilabete igaro ondoren organo eskudunak ebazpen adierazirik eman ez badu, eskabidea ezetsitzat hartuko da baldin eta informazio-kartela edo errotulua jabari publikoko eremuan, zortasun-eremuan edo eraikuntza-lerroak mugatutako eremuaren barruan jartzeko bada. Gainerako kasuetan, eskabidea baietsitzat joko da, betiere bidesegurtasunari kalterik ekartzen ez badio.

2. Baimenak eman aurretik, beharrezkoa izango da kasuan-kasuan eskatu beharreko fidantza eratzea.

3. Los rótulos, dibujos o inscripciones que figuren sobre los vehículos automóviles, y se refieran exclusivamente al propietario de éstos o a la carga que transportan, no tendrán la consideración de publicidad.

4. No obstante, se prohíbe la utilización de sustancias y/o materiales reflectantes, colores o composiciones que puedan inducir a confusión con señales de tráfico o circulación o que puedan obstaculizar el tráfico rodado.

**Artículo 11.—*Bilingüismo***

1. Los textos de los carteles informativos deberán cumplir con lo dispuesto en la normativa de normalización lingüística vigente y en todo caso los nombres se atendrán a lo siguiente:

— Nombres propios (poblaciones, provincias, Comunidades Autónomas, puntos característicos):

Se escribirá únicamente el topónimo oficial.

Si no hubiera sido adoptado todavía un topónimo oficial, se escribirá el nombre propio en las dos lenguas: en la propia de la Comunidad Autónoma y en castellano. En este último caso, si el nombre fuera suficientemente corto para caber en un sola línea, se pondrá primero en la lengua de la Comunidad y luego, separado por una barra (/) en castellano; si por si su longitud convinieran dos líneas, el nombre en castellano se pondrá debajo del de la Comunidad Autónoma, separado por una línea horizontal.

No obstante lo anterior y mientras no se modifique el Mapa Oficial de Carreteras, si el topónimo oficial de una población difiriese mucho del que figura en la edición corriente de dicho Mapa, se escribirán ambos.

El tipo de letra no experimentará variaciones.

— Nombres comunes: Los nombres comunes se escribirán de la misma manera descrita para los nombres propios sin denominación oficial, con el tipo de letra que corresponda a cada uno, y procurando sustituirlos, en la medida de lo posible, por pictogramas.

TÍTULO III

**PROCEDIMIENTO**

**Artículo 12.—*Solicitud***

1. Los carteles informativos, los rótulos de establecimientos mercantiles o industriales así como los rótulos eventuales pueden ser colocados por las personas interesadas previa solicitud al Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral de Bizkaia de la correspondiente autorización, siendo a cargo de los titulares de la misma su conservación y mantenimiento.

2. Las personas interesadas deberán dirigir a tal efecto solicitud al Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral de Bizkaia acompañando los siguientes documentos:

a) DNI o CIF.

b) Memoria descriptiva de la instalación.

c) Plano de situación a escala, acotando a las distancias a la carretera.

d) Presupuesto de la instalación.

e) Proyecto técnico visado por el Colegio Oficial en los supuestos regulados en el artículo 6.3.

**Artículo 13.—*Autorización***

1. Transcurridos cuatro meses desde la presentación de la solicitud de autorización sin que se haya notificado resolución expresa por el órgano competente, la solicitud se entenderá desestimada cuando el cartel informativo o el rótulo se sitúe en las zonas de dominio público, servidumbre o dentro de la zona delimitada por la línea de edificación. En el resto de los supuestos, la solicitud se entenderá estimada siempre y cuando no se afecte a la seguridad vial.

2. Las autorizaciones requerirán de la previa constitución de la fianza que en su caso sea menester exigir.

cve: BAO-BOB-2011a097

**14. artikulua.—*Baimenaren ondorioak***

1. Lortu beharreko gainerako lizentzia eta baimenak eskuratzeko baldintzapean ematen dira baimenak, betiere jabetzaren eskubidea errespetatuz eta hirugarrenei kalterik egin gabe.

2. Baimenok ematearen ondorioz, ez da inoiz ere jabari publikoa lagako, eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik baimenaren titularrari edo hirugarrenei dagokienez.

3. Kartelean edo errotuluan jasotako informazioaren egiatasuna baimenaren titularraren erantzukizuna da, bai eta kartel edo errotuluaren instalazioa, kontserbazioa eta mantentzea ere.

**15. artikulua.—*Baimenaren indarraldia***

1. Publizitateko kartelak jartzeko baimenen indarraldia ezin da lau urte baino luzeagoa izan.

2. Baimenaren indarraldia amaitu ondoren, titularrak baimena berritzeko eskaera egin behar du, edo, hala badagokio, publizitateko kartela kendu behar du. Bestela, administrazio eskudunak prozedura hasiko du kartela kentzeko, baina interesdunaren kontura kenduko da kartela.

**16. artikulua.—*Baimena ezeztatzea***

1. Bizkaiko Foru Aldundiak edozein unetan kendu ahal izango du kartela baldin eta errepidearen zerbitzua edo bide-segurtasuna direla-eta beharrezkoa bada, kartela txarto kontserbatuta badago edo informazioaren xedea den jarduera amaitu bada. Baimena ezeztatzeak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik emango.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak bere kabuz hasiko du baimena ezeztatzeko prozedura. Edonola ere, ebazpen-proposamena egin aurretik, eragindako pertsonei entzunak izateko aukera eman behar zaie, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

3. Baimena ezeztatzea erabakitzen duen ebazpenean ezarriko da zein epe ematen zaion baimenaren titularrari informaziokartela edo errotulua kentzeko, eta, horrez gainera, honako hau ohartaraziko zaio: epe hori igarota, kartela edo errotulua kenduko da, titularraren kontura, eta, hala ere, legezkotasuna babesteko aplikatu beharreko neurriak eta zehapenak ezarriko zaizkio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Merkataritza- eta industria-establezimenduetan, seinale bertikalei buruzko 8.1-IC Arauan ezarritakoaren arabera jarriko dira informazio-kartelak eta errotuluak, eta, beharrezkoa denean, ibilgailuei eusteko sistemaren bidez babestuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik eskatutako baimenak izapidetzean, eskabidea aurkezten denean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.

Foru dekretu honetan xedatuta ez dagoenerako, arloan aplikatu beharreko nazioarteko, Europako, Estatuko eta erkidegoko araudian ezarritakoa bete beharko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira honako foru dekretu honetan ezarri denaren aurka dauden lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.—*Arauak emateko ahalmena***

Herri Lan Saileko diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau gauzatzeko beharrezkoak diren arauak eman ditzan.

**Bigarrena.—*Indarrean jartzea***

Foru Dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2011ko maiatzaren 17an.

Herri Lanen foru diputatua,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-810)

**Artículo 14.—*Efectos de la autorización***

1. Las autorizaciones se otorgan a reserva de otras licencias y autorizaciones que resulten necesarias, a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

2. Las autorizaciones no suponen en ningún caso la cesión de dominio público ni la asunción por parte de la Diputación Foral de Bizkaia de ninguna responsabilidad respecto de la persona titular de la autorización o de terceros.

3. La veracidad de la información contenida en el cartel o rótulo será responsabilidad de la persona titular de la autorización, al igual que la instalación, conservación y mantenimiento.

**Artículo 15.—*Vigencia de la autorización***

1. La vigencia de las autorizaciones para la colocación de carteles publicitarios no podrá ser superior a cuatro años.

2. Finalizada la vigencia de la autorización, su titular deberá proceder a solicitar su renovación o, en su caso, a la retirada del cartel publicitario. En caso contrario, la Administración competente iniciará el procedimiento para su retirada, la cual se llevará a cabo a costa del interesado.

**Artículo 16.—*Revocación de la autorización***

1. La Diputación Foral de Bizkaia podrá en cualquier momento revocar la autorización cuando lo requieran las necesidades del servicio de la carretera o la seguridad vial así como en los supuestos de defectuosa conservación, cese de la actividad objeto de información. La revocación de la autorización no dará derecho a indemnización.

2. El procedimiento para revocar la autorización se iniciará de oficio por la Diputación Foral de Bizkaia. En cualquier caso, antes de la propuesta de resolución, debe darse audiencia a las personas afectadas al objeto de que puedan formular las alegaciones que estimen oportunas.

3. La resolución mediante la que se acuerde la revocación de la autorización determinará el plazo que se concede a la persona titular de la misma para proceder a la retirada del cartel informativo o del rótulo advirtiéndole de que, transcurrido el mismo se procederá a retirarlo a su costa sin perjuicio de las medidas de protección de la legalidad y sanciones, que en su caso, resultaran de aplicación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La colocación de carteles informativos y rótulos de establecimientos mercantiles o industriales se realizará según lo establecido en la Norma 8.1-IC de señalización vertical debiendo protegerse en caso necesario mediante el adecuado sistema de contención de vehículos.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La tramitación de las autorizaciones solicitadas con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto Foral se regirá conforme a lo dispuesto en la normativa vigente al tiempo de presentarse la solicitud.

En lo no dispuesto en el presente Decreto Foral, se estará a lo establecido en la normativa internacional, europea, estatal y autonómica aplicable en la materia.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en el presente Decreto Foral.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—*Habilitación normativa***

Se habilita a la diputada de Obras Públicas para dictar las normas que sean precisas para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

**Segunda.—*Entrada en vigor***

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 17 de mayo de 2011.

La diputada foral de Obras Públicas,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

El Diputado General
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-810)

cve: BAO-BOB-2011a097